



Martin
Treku *Mattin*

1916-1981

BIDeGILEAK

Egilea:
Joxemari Iriondo



MARTIN TREKU MATTIN

(1916-1981)

Irriaren giltza

Nekez izango da euskaldunik Ahetzeko Mattin bertsolari ttiki handiaz zerbait baino gehiago ez dakienik. Izan ere, besteak beste, Xalbadorren bertiko lagun leial bezala gogoratzen dugu batzuetan; besteetan, berriz, «Mattin irriaren giltza» (Xalbador), «Ahetzeko urretxindorra» (Azpillaga), «Lapurdiko danboliña» (Lopategi), «Mattin izar berria» (Pello Esnal), edota, «Bulto txikia daduka baiña ain da gizon atsegiña/ bere lagunez biotz barrendik egiten du atsegiña/ Gizon bezela aingerua da, txoria balitz, panpiña/ pozak kantatzen dakiena

ta penak gordetzen dakiña» (Lazkao Txiki, Donostia, 1971.03.19), eta abar bezala.

Gerra handia amaitu zenean, Teodoro Hernandorenak (beste gizon ttiki handia huraxe ere!) Bidasoaz goi aldeko bertsolariak bildu eta hango lehiaketak antolatzeari ekin zionean azaldu ziren iparraldeko bertsolaritzako bi izar handi. Bata, Baxenafarruko Fernando Aire *Xalbador* zen, bestea Lapurdiko Martin Treku *Mattin*.

Halaxe, 1946an, hasitako bideetan barrena urteak eta urteak egin zituzten biok mugaren alde bietako bertso-giroan mur-



Mattinen irria

gildu eta hura osabetetzen, bertso-saioen osagarri eta apaingarri ezinbesteko izaten. Haiek bien lagun mina zen Joxe Mari Aranalde zenari entzun genion behin haietxek biok zirela Euskal Herriko don Kixote eta Santxo.

Mattinek beste era batera esango zukeen, seguruenik, hark ez zuen Kixote eta Santxoren entzuterik-eta: «Iduri dugu hemen gaudela monagilo ta apeza» (Donostiako Astorian, 1971.03.19an).

Gure belaunaldiarentzat ez da erraza izango Ahetzeko Mattin aipatu eta Xalbadorrez ahaztea. Baina alderantziz ere berdintsu gertatuko zaio garai hartako bertsozaleari. Bereizi ezinak ziren sarritan, batek bestea

edertu eta osatzen baitzuen. Hego eta iparraldean ehunka bertso saiotan kantatu zuten elkarrekin, baina ez Euskal Herrian bakarrik. Behin baino gehiagotan kantatu zuten Parisen, baita Kalifornian ere, gero ikusiko duzunez.

Donibane Lohizunen egindako txapelketa batean (1946) ezagutu zuten elkar, eta geroztik kontaezin ahala bertsoalditan ibili ziren bateko eta besteko, berak esan bezala:

Geroztikan izan gira segur gu lagun handiak;
Ameriketan barnaka ere gu gira ibiliak.
Bizkaia ta Gipuzkoara joaiten ginen beti biak;
hameka bertsu entzuna dauka gurekin Euskal Herriak.

Bertsulari bezala, hitz-jario bixi-bixikoa zen Mattin, ahotsa eder, gogoia erne eta mingaina bixi. Gaia jarri, eta, di-da!, erantzuna azkar ematen zuen horietakoa zen, hitzetik hortzerako bertsolaria, alegia. Txapela handia buruan, eta irribarre pikarria ezpainetan, beti umore oneko. Eta ematen zitzaion gaia ematen zitzaiola, gus-tura onartzen zuenetakoa. Bakarrik nahiz taldean izan, gizon gozoa eta atsegina.



Mattin ttiki handi hura

Ahetzen sortua zuen bertsoarako zale-
tasuna eta ahalmena. Baina irakurtzeko
ohitura ere bazuenez, bat-bateko bertso-
-lana ez ezik idatzizkoa ere maite zuen.

Bestalde, «Mattinek ezer gutxi behar zuen
nihor adiskidetzat hartzeko» dio Antonio
Zavalak *Mattin bertsolaria, Mattin eta
Mari Treku* (Auspoa 298) liburu bilduma-
ren hitzaurrean.

SORTERRI MAITEA


Mattin bertsolaria, Ahetzeko Harrieta la-
borari-etxean sortu zen mundura, 1916ko
azaroaren 11n. San Martin egunez jaio zen,

beraz, eta eguneko santuaren izena jarri
zioten pontean. Hala ere, Martin izenez
ez baina *Mattin* deituraz zen ezagunago
Ahetzen eta Euskal Herri osoan ere.

Zenbait urte Harrieta etxean bizi ostean,
«Burrasoeak deliberatu zuten joaitea han-
dik berrehun metra urruntxago aitonak
erosi etxe ttiki batetarat, Kaxandegia
deitzen zena». Geroago, 1940 urtean,
Moulienia baserrira aldatu zen Treku fa-
milia, aitonak erositako laborari-etxea
txiki eta eskas zutelako. Eta harrezkeroz-
tik hantxe bizi izan ziren beti, eta hantxe
bizi dira gaur egun haien oinordeko Jean
Pierre semea eta erraina ere.

Mattinen aita, Pantxoa Treku, Harrieta
etxe berean sortua zen. Baina aitaren
aita, Mattinen aitatxi alegia, gipuzkoarra
zen, Lezoko semea jaiotzez, eta karlisten
bigarren gerra denboran, mutikoa zela,
Ahetzera bizitzera joana gurasoekin. Ho-
rrexegatik erdia behintzat giputza zuela
esan ohi zuen Mattinek, bere jaioterri
Ahetze ukatu gabe.

Lapurdiko itsas hegia ez ezik Gipuzkoa
eta Nafarroako mendiak ere aurrez aurre
zituela bizi eta hazi zen Mattin: Jaizkibel,
Aiako Harria, Larrun, Ibantelli, Artxu-
ria, Artzamendi, Baigura... Eta bitartean,



Lapurdiko muino-maldak, artasoroak, harizti galantak, mahasti bat edo beste han-hor-hemen, iratze sailak eta baserri txuri-gorri politak irribarrez ikusten zituela. «Toki argia, zabala, atsegina, alai, biotz pizgarria. Eta, nolako tokia, halako nagusia», dio A. Zavalak Mattinen bertso-liburu baten atarikoan. Geu horretan: Tokiaren zabal ederrak eta argiak, alaitasuna eta umorea txertatu baitzizkion Mattini, ezbairik gabe.

ESKOLARI TXARRA

Sei urte zituela hasi zen herriko eskolara joaten, haren garaiko beste neska-mutikoak bezalaxe. Baina eskolara joan, eta han frantsesez egin behar zen; eta Mattinek tutik ez jakin euskara izan ezik, haien etxean beti euskaraz mintzo baitziren.

Hala ere, eskolara joateko garaia heldu zenean, «Mutikoa, ez hadila kexa! Ni ere hi bezala ninduan, eta ikusten duk: nurat nahi joanik ere, denek konprenitzen naitek» esan omen zion aitak, semea lasaitu nahirik. Gogo handirik gabe hasi zen ordea, eta gogorik gabe jarraitu zuen.

Aitak lana harrobian egiten zuen garai hartan, eta ama, berriz, josteko makina bizkarrean hartu eta etxez etxe ibiltzen zen inguruko auzotarrek eskatu ahala haien arropak josten. Etxean mozkin gutxi zen eta beharko zerbaiti heldu.

Mattin eta bere arreba M^a Terexa eta M^a Luixari etxeko lanak egitea tokatzen zitzaien askotan. Eta etxean zeukaten betroi kaskar bakarra zaindu behar izaten omen zuen Mattinek, eta nahigabe bat baino gehiago eman bide zion harekek.



Behingoz txapelik gabe



Mattin, irriaren giltza

Herriko eskolan ezer gutxi ikasten zuela mutikoak, eta Getarian zuten osaba batek berekin eraman nahi izan zuen hain maite zuen zazpi urteko iloba Mattin ttikia, han eskolarako aukera hobea emango ziola irudituta, tartean etxeko lan batzuk eginez.

Getarian iragan zuen lehenbiziko astean guztiz arretatsu eta langile ibili omen zen, eta osaba ere gustura benetan, ilobari aukera ederra ematen ziola pentsatuta. Hala ere, eskolakoak egiten zituenean, osabak bere kargu zituen egunerokoak eta kazetak etxeetara banatzeko mandatua eman zion, jostatzeko astia izango zuela-eta lanak egin ostean.

Horrek asko lotzen zuen ordea, eta ez zuen maite lanbide hori. Gero, astebetere buruan lagunak egin zituen jostatzeko. Baina pilotarako zaletasun gehiago zuen Mattinek eskolara joateko edo osabaren lanak egiteko baino. Eta osabaren nahiak eta usteak erdi ustel gertatu ziren itxura denez. Kazeta eta liburu banaketa hala-hola egiten baitzuen, berriro Ahetzera itzuli behar izan zuen gurasoen etxera osaba haserre xamar utzita Getarian. Baina, «gure burrasoak etziren asko harritu, bazakiten debru hutsa nintzela-eta», esan ohi zuen, irribarrez.

BASERRIKO LANAK

Hamabi urte zituen Mattinek eskola utzi eta bere aitarekin plazako etxe batean sartu zirenean. Eta hango agure xahar baten behiak eta lanak egin behar izaten omen zituen. Goizetan, abereentzat belarra eta bazka etxeratu, eta gero baratzeko lanak egin. Ordurako gizon egina zela esan ohi zuen, gustuko lekua baitzuen plazakoa, pilotalekua hurbil zeukan-eta, batez ere. Egarritu ezkerro, berriz, ostatua ere hurbil zeukaten han.

Garai hartantxe hasi zen Mattin bertsoan ere, adineko jendearekin bildu eta ordu ederrak pasatzen zituztelarik herriko ostatuan. Pantxoa eta seme Mattin, biak ziren kantuzaleak, eta ederki abesten zuten gainera.



Rochefort-en soldadu



Ahetzeko urretxindorra

Bota, Mattin. 1979an Donostian

LEHENENGO BERTSOAK

Bertsotarako zaletasuna eta dohaina jatorritik zetozkion hari, ume-umetatik, berak sarritan aitortzen zuenez. Bere amaren lehengusu bat ere bertsolaria omen zen, eta Mattin izena hark ere. Deitura, berriz, Gariador.

Bestalde, amaren aldeko aitonari bertso zahar asko ikasi bide zion Mattinek, asko zekiena baitzen. Eta aitona horren osaba bat ere bertsolaria zen, izenez Mattin hura ere, baina deituraz Inhargué.

Piarres Lafitte euskalari handiak kontatzen duenez, Oxobi zena Arrangoitzeko

erretore zela, uztaileko egun batez Ahetzera joan omen zen bazkaltzera, eta ardoz ondo busti zirenean, hasi omen ziren hango batzuek ditzoka eta bertsotan, irriz eta barrez. Halako batean, mutiko ttipi gotor bat hasi omen zen xaharrekin ditzotan, geroz ausartago, geroz hitz-jarioago. Baita bertsotan ere itxura denez. Ondoren, Oxobi jakintsuak hantxe eman zizkion bertsotarako lehenengo ikasgaiak, eta bai erakutsi ere bat-bateko bertsotarako baldintza batzuk, hala nola, bertsoaren neurriak, potoa, puntuak nola hautatu behar diren, bertsoaren luze-laburrak nola neurtu eta abar, beti doinuari ondo

erreparatuz, doinua baita neurriaren bide-
lagunik leialena bertsoan.

Laster ohartu zen Mattin bertsoaren non-
dik norakoez. Eta hamazazpi urte zituela,
iparraldeko famatuenak ziren Sarako fes-
tetara joan zen, han bertsolariak urteoro
izaten zirela-eta.

Egun hartan bertsolari bakarra zuten
ordea Saran, Luhusoko Panpale deitzen
ziotena, deituraz Larralde. Mahai baten
gainean eserita ari omen zen, baina ez
zuen lagunik nonbait eta bakar-bakarrik
ari zen bertsoan, gaurko gazteek ez dutela
bertsotarako gogorik eta holakoak esanez.
Nahiago zutela ostatura joan, edan, moz-

kortu eta litxarrerian ibili, ez zirela garai
batekoak bezalako gazte euskaldun sano
eta jatorrak, eta abar.

Gazteen aurka halako arrazoiak entzun
zituelarik, zeharo berotu zen gure Mattin
gaztea; baina ausartzen ez, ordea, Panpa-
leren aurrez aurre jarri eta hari serio
erasotzen. Lagunek berotu/behartu zu-
ten bertsolari zaharraren ondoan jarri eta
kantari hasi zedin.

Halaxe, nahitaez hasi zen Mattin lehe-
nengo aldiz plazan bertsoan, 1933an.
Geroztik, urtero gonbidatu ohi zuten
Sarara, 1939ko gerra artio, Larralderekin
egin zuen saio haren esker onez-edo. Eta



Mattini omena, Oiartzunen, 1981ean



Xalbador, Labeguerie eta Mattin

etxez etxe eskean ibiltzen ziren, musika laguntzaile eta Mattin koplari hartuta, lehenengo usadio zaharrean eskean.

IPARRALDEKO TXAPELKETAK

Munduko Bigarren gerratea amaitu zenean hasi ziren Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Xuberoako bertsolaritzaren mugimenduak, 36ko gerra hasi zenean hegoaldeetik ihes eginda iparraldean bizi zen Teodoro G. Hernandorena mediku jaunak egindako ahaleginari esker, jakina denez. Itxura denez, bertsolariek han ez zuten estimurik ordura arte. Ez Eskual-



Mattin, Etxahun, Iriarte, Zubikoa, Donibane Lohizunen 1947an

tzaleen Biltzarrak eta Dassancek berak ere ez zieten jaramonik egiten bertsolarien arlotekeriei, arlote eta erdi mozkor batzuk besterik ez omen zirela-eta, esaten zutenez.

Hernandorena izan zen hasi itsas hegitik eta Xuberoako Irurirainoko bazter-xoko guztiak herriz herri miatu eta 16 bertsolari bildu zituen lehenengo bertsozalea: Xalbador (Urepele), Zubikoa (Banka), Intzabi, Iriarte eta Xetre (Hazparne), Goikoetxea *Orkazarre* azpeitiarra eta Aintziart (Helta), Errexil (Errezil-Urruña), Etxahun (Iruri), Larramendi (Suhuskun), Gariador (Arrangoitze), Etxexuri (Amikuze), Mattin (Ahetze), Meltxor (Hendaia), Larramendi (Irisarri) eta Felix Iriarte (Banka).

Donibane Lohizunen 1946ko irailaren 22an egin zen iparraldeko lehenengo bertsolarien bilkura handia, eta aipatu hamasei bertsolari horietatik zortzi hautatu zituzten urte hartako azaroaren 17an Hazparnen egingo zen lehenengo txapelketarako: Xalbador, Zubikoa, Etxahun, Felix Iriarte, Goikoetxea, Mattin eta Meltxor. Eta Etxahun Iruri izan zen iparraldeko lehen txapelduna.



Hernandorena, Mattin, Xalbador eta Uztapide, Parisen 1958an



Xalbador, Xanpun, Ezponda, Errezil, Zubikoa eta Mattin



Xanpun eta Mattin

Hurrengo urtean ere gogoz jarraitu zuen Hernandorenak, eta Ezpeletan (1947.08.24) eta Donibane Garazin (1947.09.08) bigarren eta hirugarren txapelketak antolatu zituen. Eta, nola batean hala bestean, Mattin izan zen iparraldeko bertsolarien txapeldun; eta Felix Iriarte, bigarren.

HEGO ETA IPARRALDEKOAK

Handik aurrera, Saran (1948.04.04), Lu-huson (1949.04.24), Saran (1949.05.22), Urruñan (1949.11.20), Donibane Garazin (1950.04.16), Donibane Lohizunen (1950.10.01), Baigorriin (1951.09.23), Saran



1967an, Donostian

(1952.09.21 eta 1952.12.28) iparraldeko bertsolarien norgehiagokak antolatzen jarraitu zuen Hernandorenak berriro ere.

1953tik aurrera, hego eta iparraldeko bertsolariak nahastuta antolatzen saiatu zen. Lehiaketa haietan guztietan parte hartu zuen Ahetzekoak, Xalbador, Uztapide, Basarri, Lasarte, Mitxelena, Lizaso eta abarrekin orpoz orpo.

Aldi berean iparraldeko eta hegoaldeko herrietan arrakasta itzela lortu zuen Mattinek, betiko bere lagun Xalbadorrekin bertsotarako bikotxa osatuz. Urepele-

koa seriosa bazen ere, Mattinek nahiago zuen irri egiteko kantatu. «Tristezia, bera etortzen da, aski goiz. Beraz, maiteago dut atakan, arrazoinka, batailan ari izan bertsutan», aitortzen zuen askotan.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA NAGUSIA

Nolanahi dela ere, ez dugu uste Mattin txapelketa gizona zenik. Lagun arteko bertsolaria zen bereziki, eta bertso saio-etako arima, saioen suspertzaile, irribarre gozoaren eragile beti.

Hala ere, 1960tik 1967ra bitartean egin ziren Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusi guztietan parte hartu zuen, «bertsuzaleei gustu ematearren, batez ere». Eta oraindik ere haren bertsoen txinparta, Mattinen irribarrea eta bere ahotsaren tenore-tinbre berezi hura belarrien ertzean nabaritzen dugula esango nuke.

Bestalde, egia da hegoaldeko norgehiagoketan inoiz ez zela txapeldun izan, baina haren itxura eta ateraldiak, haren irriaren gozoa ondo gogoan gelditu ziren

1960-1970 hamarraldiko bertsozaleen artean hegoaldean ere.

Aipatu ditugun bertsolarien txapelketa horiez gainera, hegoaldean egindako bi bertsolari sariketa berezitan ere aipatu behar da Mattinen partaidetza eskuzabala.

Donostiako Anoetako pilotalekuan, 1968ko otsailaren 4an eta 11n, egin zen «Ehun mila pezetako sariketa» handi hartan ikusi genuen. Horrez gainera, Leitzan (1970.04.26), Bergaran (1970.05.03) eta Gernikan (1970.05.10) egin zen probintziarteko lehiaketan ere buru-bihotz ibili zen, Xanpunekin besoz beso.



Donostian, 1968an

AMERIKETAN BERTSOTAN

Bertsolariak Ameriketara, alajaina! Nork esan behar zuen gero holakorik?

Pariseko Euskal Etxean izanak ziren ordurako hiru aldiz ere, 1958ko maiatzaren 18an, 1960ko apirilaren 24an eta 1969ko abenduan. Baina putzu handiaren bestaldera joateko aukera eta ametsik ez zuten izan ordura arte, nahiz eta iparraldeko herrixkatatik hara joandako artzain askoren aditza eta ezagutza bazuten.

Baina ustekabean garaia etorri eta eskaintea egin ziotenean, baietza eman zuten

bete-bete. Hain justu ere, 1960ko urtea zen, eta Xalbador eta biak Ameriketara bertsotara joateko eskaria jaso zutenean, paperak egiten berehala hasi zitzairen Xarles Iriart donibane garaziarra. Hilabete osoa egin zuten Reno, Backersfield, San Francisco eta hango beste lurralde baztergabe asko bisitatu eta hango euskaldungoari bertsolarien mezua eramanez.

Lagunarteko bazkari/afarietan eta hango euskal festetan egin zituzten bere bertso saio eta jardunaldirik gehienak. Eta sekulako jendetzak bildu zituzten gainera, eta harrera ezin ederragoa izan. Urte askoan



Xalbador eta Mattin Ameriketean, 1960an



Xalbador eta Mattin, a zer pare!

Lapurdi, Xuberua eta Nafarroa aldetik urrun bizi ziren euskaldunak bertso-egarriz aurkitu zituzten. Eta hango hilabetea oso labur egin zitzaien. Hango paraje ikusgarri eta hango euskaldun jendeaz zoratuta itzuli ziren bertsolariak. Ez zegoen Ahetzeko ditzolariaren kontakizunak entzun besterik.

BERTSOPAPERAK

Bertsopaperak edo bertso idatziak paratzeko ohitura ere bazuen Mattinek, Auspoa sailean emandako *Ahal dena* (Auspoa 108) eta *Etxe xokotik kantari* (Auspoa 151) liburuetan edota *Herria* astekariaren ale askotan sakabanatuta dagoen hainbat bertso sailetan, ongi ikus daitekeenez. Askotan, lagun bat bertsoak jartzeko eskatzera joaten zitzaionean jartzen omen zituen bertso sail horiek. Besteetan, berriz, bakar-bakarrik eta umorean zegoenean eta hola, gogoeta batzuk eginez idazten zituen, gogoak eman ahala.

Hala ere, zergatik ez zuen bertso gehiago izkiriartzen galdetu Emile Larre adiski-



Xalbador eta Mattinen alargunak, Mouliniean

deak eta zera erantzun zion elkarrizketa batean: «Kasetetako eta liburuetako itekotan ez dire nolana hikoak aski, eta ez dut maite holako buruhaustetan aitzea. Beti pentsatzen ari behar da, beti xuxentzen, gauazko loak eta guziak galtzeraino. Horra zendako ez dutan maite idaztea gehiago» (*Herria*, 1977.11.01).

Azkenengo urteetan, han-hemen omenaldiak egin zizkiotenean berak joaterik ez eta idatzita bidaltzen zituen esker oneko hiru-lau bertso, askotan. Bertso horietako batzuk jasota dira Mattinen liburuetan.

Alabaina, ez zituen idatzi izango burura etorri eta jarritako bertso guztiak. Berak esanda dakigunez, askotan herriren batera bertсотara joan eta eman zioten gairen bat gustatuta, harixe bertso batzuk jartzen saiatzen omen zen etxean, lanean edo behiak larratzen zebilelarik. Baina haiek ez ditu inork jaso izango, seguruenik.

Soldadu zela, neskatxei bertsoak bidaltzen ere saiatzen zen. Baina bertso horiek ez zituen gorde.



Mattin eta Xalbador, bikote maitea

BERTSO ETA KANTU ZAHARRAK

Dozenaka kantu eta bertso zahar buruz ikasi eta kantatzen ere mutila zen Mattin, harrigarria. Ipar Euskal Herriko doinu xarmangarri asko zekien hark, eta ahots dotore eta kanturako dohain bereziaz kantatzen zituen. Mattinen bertso zaharren altxorra garrantzitsua zen, baina kantu doinuena inportanteagoa, ezbairik gabe.

Doinu eta kantu zahar horietako asko bere ait'ameri edo aitonari ikasiak zituela esan ohi zuen, batez ere. Aitonak afizio



Mattin eta Xalbador, sarri elgarrekin



Mattin eta Basarri, lagun batekin

itzela zuen bertsopaper zaharrak etxean jaso eta buruz ikasteko, eta etxean nahiz Senpereko oihanetan zehar Azkaineko festetara urteoro joaten zirelarik, bidean kanta-kantari joaten omen ziren aitona-bilobak; eta halaxe ikasi zituen aitonak zekizkien asko.

Herriko plazaren ondoan bizi ziren garaian ere aukera ederrak izaten zituen Mattinek, nola pilotan jostatzeko hala osatuan xurruk egin eta mutturra pittin bat berotuta kantari ari ziren agure zaharren bertso eta kantuak entzun eta ikasteko

ere. Eta mutikoak burua argi izan, erraz ikasten zituen han entzunak.

Soldaduskatik etxeratu zelarik kezkek handitzen hasi zitzaizkion ordea, eta lanari eraso behar izan zion serio asko. Soldaduska garaian aurreratu zituen txanpon batzuei esker bizikleta berria erosi zuen eta osaba Joxeperekin lanean hasi zen, Ahetze inguruko bideak antolatzen eta hola, bere behiak uztarrarian txukun asko hartuta. 1940an Moulienian erosi zuen Treku familiak, eta hara ezkondu zen, eta hantxe bizi geroztik beti.



Familiako gizona

Semearen komunione egunean

EZKONTZA ETA HAURRAK

Senperen sortu eta Arbonan bizi zen Jangurdoineko Mari Olandegi (ezkongaietako abizena) anderearekin ezkondu zen Mattin 1947ko uztailaren 9an.

Laborantzatik bizi ziren eta, hala ere, «bizitza goxo ereman dugu elgarrekin. Egun guzia lanean ariturik, arratsa heldu zenean, kartetan aritzen ginen, sos pixka bat jokatu... Negua zelarik, berriz, gaztainak suan emanik, aritzen ginen zoinetik hobekienik erre. Eta gero, Moulieniako arnotik edan baso bat biga», dio Mari Trekkuk bere *Mattin, nere gizona* (Auspoa 158) liburuan.

Lanean ez zen itsu eta eroa Mattin, buruz jokutzen zuen. Maite zuen etxe ingurua landarez ongi jantzi eta fruitu arbolak txerztatzea; eta garai batean Moulienian zuten mahasti ederra ere arretaz zaintzen zuen, gero ardo ona egin eta izateko itxaropenez. Abereak ere beti izan zituen etxean, eta, eguraldi ona zenean, larre ederraren atseginean haiek bazkatzen ikusi nahi izaten zituen. Irriz eta kantuz egoten zen larrean ari ziren betroiei begira zorutzen.

Arestian esan bezala, bazuen beste ofizio bat ere Mattinek: ile moztaila. Herriko haurrei eta familiakoei berak mozten zien ilea behar zuten bakoitzean.



Senar-emazteak semearekin – Oiartzun, 1981.06.07

Bi gauza maite zituen beste guztien gainetik Mattinek, bereziki. Bat, herriz herri bertso kantari ibiltzea; eta, bi, bere inguruan familia eder gozo bat izatea. Izan ere, familiako gizona zen Mattin, orduko bertsolariak ibiltari eta edale arlotearen fama bazuten ere.

Senar-emazteak ilusioz bete zituen lehengo haurra eroriko txar baten ondorioz gaizki etorrita galdu zuten. Gero, bigarren haurra jaio zen. Eta aitonaren gogoz Pantxo izena jarri zioten. Baina zazpi hilabetez bakarrik bizi izan zen, aita kantuz eta aitona xoratzen zuela. Hura ere hil egin zitzaien ordea, eta ikaragarri sufritu zuen Mattinek.

Alabaina beti animoz beterik zegoen haren bihotza, eta berriro alaitu zen hirugarren oinordeko Jean Pierre maitea bidean zelarik. Aurreko pena guztiak ahantzi eta harexen ilusiotan bizi zen. Semea bizkarran hartu eta bateko eta besteko ibiltzen omen zen auzoan, bere semea erakusten denei. Bertsoara joaten zelarik ere etxerako pozez egoten zen emaztea besarkatu eta semearekin solas egiteko. Zerurik ederrena baino zeruago zen harentzat Moulienian. Han baitzegoen berak eskatzen zuen familia gozo eta maitea.

Gaindegi ikusgarri hartatik itsas hegia eta Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroako gailurrak aurrez aurre ikusten zituen, nola neguko elurretan zuri, hala udako eguzki argitan blai. Toki ederrak izango dira, baina «haxe baino ederragotik ez da izango munduan», esaten zuen harro asko.

SEMEA PARISA

Moulienian baserria laborari-etxe ttipia baitzen, Jean Pierre semea Bidarteko posta-etxean hasi zen lanean eskolako lanak burutu bezain pronto. Eta Mattin pozik bizi zen lanorduak bete ostean egunero



Bertsolari lagunekin

etxera etortzen zen-eta semea. Gero, ordea, posta-etxeko lanpostuan gora egiteko lehiaketa gainditu zuen, eta Parisa desti-
natu zuten, on beharrez, jakina.

Semearen gorakoak ospatzeko moduko gertakizuna zirudien, begiratu batera. Baina, ura zen nahigabea hura gurasoentzat! Mattinentzat ikaragarria izan zen hura, nahiz eta bazuen itxaropena egunen batean berriro itzuliko zela ere Moulieniara, bera zen-eta Trekutarren oinordeko bakarra. Inoiz entzun genionez, «Batzuentzat Parise parabisua da, aldiz enetzat semea presondegira bialtzea bezalatsu».

Eta justu garai hartan, 1973ko otsailean, semearen gai horixe jarri zion J.M. Aranalde adiskide zenak Añorgako bertso saio batean: «Nik eztakit zuek badakizuten, baina nik bai. Mattinen semea Parisa doa lanera. Hiru bertso, Mattin».

Bihotza penaz leher zorian, begietan gorde ezindako malko lodiak diz-diz, eta buruan mila pentsamendu. Añorgan bildu ginen bertsozaleon aurrean irribarretsu azaldu nahi zuen, baina barreneko tristezia ito ezin. Hura zen estutasuna eta larria Mattinena! Azkenengoan negarrez lehertu zelarik:

Herri txikitik partitua haiz
Parise herri haundira,
ait'eta ama haretxetikan
hor zaudek hiri begira.
Urte batzuek hor pasata're
Parisen itzul ta bira,
ait'amengana etor hadila
lenbaitlen Euskal Herrira.

Lehenengo aldia zen, baina negar malko loditan bere hirugarren bertsoa amaitzen ikusi genuen Mattin Añorgan. Hala ere, ez dakit Mattinek baino okerrago ez ote genuen pasatu momentu hura han bilduta geunden bertsozaleok. Adibidez, Xalbadorrek bere *Mattin nigarrez ikusi dut* bertso sailean idatzi zuena da lekuko (*Odolaren mintzoa*-Auspoa).

Treku familiaren atsegin handirako berriro etorri zen ordea Jean Pierre *Panpili* etxera, eta aldi bateko penak eta nahigabeak poz-iturri bihurtu zizkien Mattini eta emazteari. Ez dago honako bertsoa irakurri besterik: «Kantuz hastera noa semiaren gainian/ etxetik kanpo baitzen joan den aspaldian/ Loriatu naiz berriz etorri denian/ nigar ongi eginik partitu zenian».



Oiartzunen familia eta lagunekin

OMENALDIAK ETA URTEURRENAK

Berebiziko omenaldia eskaini zioten Donostiako Astoria zinema aretoan bertsozale eta bertsolariek, 1972ko urtarrilaren 16an. Besteak beste, hantxe ziren Uztapide, Lasarte, Xalbador, Lazkano, Agirre, Joxe Lizaso, Arozamena, Garmendia, Azpíllaga, Lopategi, Gorrotxategi eta Lazkao Txiki, eta haien saioak entzun ahal izan genituen goiz hotz eta eder hartan. Areago: Astoria areto handi eta zabala txiki gelditu baitzen, bozgorailuak ezarri behar izan zituzten sarrera gabe atarian gelditu ziren bertsozaleentzat.



Ahetzeko plazako oroitarria

Miarritzen 1977an omendu zuten. Bere sorterri Ahetzen, berriz, 1978ko apirilaren 30ean. Bertsozale asko bildu zen eguerdi eta arratsalde, nola iparraldetik hala hegoaldeetik. 1981eko ekainaren 7an omendu zuten berriro Oiartzunen, hogeita hamabost urtez han ibilia zen-eta bertso kantari. Juan Mari Lekuonak hitz egin zuen Mattinen bertsozaintzaz, eta gero hamabost-hamasei bertsolarik kantatu zuten.

Bertso saioaren ondoren lagunarteko bazkaria egin zen. Mattin eta Uztapide elkarren ondoan eseri ziren, maitasunezko lagunarte hartan. «Ez dakit Mattini bihotza eritu zitzaionez. Nik dakitana da Uztapideri ezpainak dar-dar hasi zitzaizkola eta nigar malkoak jausi bi begietatik», idatzi zuen gero Mari Trekuk.



Saria jasotzen Donostian, 1965ean

Gure Mattin nekatua, ahitua zegoen ordurako ordea. Eta berak ezin baitzuen, idatzitako hiru bertso eman zizkion herriko gazte bati jendearen aurrean kanta zitzan, denei eskerrak emanez:

Gipuzkoako herriak gehienak'tut
ezagunak,
denetan bilatu ditut bihotzeko
euskaldunak.
Eta gaur agurtu nahi nuzke nik
bertsolari lagunak;
denak bihotzez maitatzen ditut,
denak izan dira onak.

Egun batzuk lehenago, berriz, Usurbilen omendu zuten Ahetzekoa, 1981eko uztailaren 4an, Lazkao Txiki, Lasarte, Joxe Lizaso, Azpillaga, Lopategi eta Xanpun bertsolari zirela. Jaialdi bikain hartako



Joan Mari Lekuonarekin, Oiartzun, 1981

azken agurra Mattin eta Xanpunek egin zuten bosna bertso kantatuz, Antton Aranburu aurkezleak halaxe eskatuta. Huraxe izan zen Mattinen azkenengo saioa, seguruenik.

Mattinen heriotzak bertsozaleen artean utzi zuen zauria berri-berria zegoen arte, 1987ko uztailearen 18an, jaialdi bikaina egin zen Ahetzen. Baita heriotzako hamargarren urteurrenean ere, 1991ko irailean. Piarres Erdozaintzi gazteak zizelkatutako Mattinen eskultura ezarri zen plazan, gainera. *Xalbadorren Eguna* zela eta, 2006ko urrian omendu zen Urepelen. Ahetxen, berriz, azaroaren 12an.




Eskolarteko bertsolari gazteekin, 1981ean

IZAR HANDI BAT ITZALTZEN

Han eta hemen, behin eta berriro gogoratu nahi izan dute Euskal Herriko bertsolari lagun eta bertsozaleek Ahetzeko urretxindorrari dioten esker ona. Hala ere, izar handi bat itzali zen 1981eko uztailean bertsolaritza eta euskararen zeruan.

1976ko azaroaren 7 hura ez zuen ahaztu inoiz, Xalbador lagun mina galdu baitzuen egun madarikatu hartan, eta bertso-lagunaren hutsunea hezurretaraino sartu zitzaion Mattini: «Bere herrian omenaldian hil eta zerura juna/ geroztik hemen nabila, ematen dut alarguna» (Donostian, 1977.01.16an).



Urepelekoa hil eta handik bost urtera, 1981eko uztailaren 22an, itzali zen Mattinen irria.

Egia da, bai, Xalbador hilda gero sorte makurra izan zuela. Umorez eta penaz, behin baino gehiagotan esan zigun «hirutan hogoitik gora hasten diren ajeak» zituela bere gorputzean. Jan-edanek ez zioten kalterik egiten, eta osasuna hala-holakoa zuen, itxuraz. Baina, ez hau eta ez hori, «Ez dakit zer dutan, beti egarri naiz», esan zion behin emazteari; eta medikuarengana eraman zuen berehala. Analiak egiteko agindu zion Narbaitz sendagile lagunak. Eta laster jakin zuen diabetesa zuela, eta errejimen zorrotza egin beharko zuela handik aurrera.

San Martin jaia zen Ahetzen, eta midikuak agindu bezala, errejimen eta dialisia egiten hasi behar izan zuen, bizi beharrez. Ez zen berriketako gaixotasuna, eta halaxe onartu zuen Mattinek ordura arteko ahuleziarik makurrena. Dena ez, baina bertsolaritza ere baztertu behar izan zuen, eta handik aurrerako egunak ez ziren lehengo berdinak, inola ere. Erietxera joan-etorriak, minak... Hala ere, bere min

eta ezintasun guzien gainetik, denei irri eginarazten saiatzen zen.

Gero, istripu txar bat izan zuen berriz. Traktore berria erosi, eta badoa arratsalde batez auzoko lagun bati huraxe erakustera, traktore gainean kantari eta irribarretsu, bere xakurra ondoren zuela. Baina handik ordu erdira, Mattin traktore azpian zegoela eta ezin zutela atera abisua jaso zuten etxean. Ez zekitela hilda zegoen ala bizirik, gainera.

Orduak pasa ziren, eta, halaxe, ambulanzia etorri zenerako Mattin lurrean etzanda zegoen, sufrimenduak ezin jasanez, bere zakurra aldamenean intziriz zuela.

Handik aurrera, berrogeita zortzi egun pasatu zituen klinikan, mugitu gabe ohean. Baina pittin bat polikitu zenean, berriro etorri zitzaion lehengo umorea, eta nekez ahaztuko dute Mattin, libre zirenero hura nola zirikatuko joaten ziren erizain eta lagunek. Harrigarria zen gizon txiki handi haren portaera! Harrigarria, sufritzen zegoelarik ere lagunei beti eskaintzen zien irribarrea.

Ondorengo egunak, oraintxe Bidarten, geroxeago Baionan, etxetik klinikara eta



Donostian, 1968.02.11n

klinikatik etxera ibili zen, noizbehinka Andres Narbaitz sendagilea. Mitxel Labeguerie eta lagun askoren bisitak hartuz.

Baina gero, Mattinen betiko irria eta umorea, pittinka-pittinka itzaliz joan ziren. Erietxean zelarik, «Mari, zatoz ene bila, zurekin naiz hobekien-eta. Hil behar badut ere zeure besoetan nahi nuke» esan zion behin batean. Eta irratiz entzun ostean etxeratu zutela, mundu bat izan zen Moulienian. Bere mediku Narbaitz, bere lagun minenak eta abar, Mattini animoa ematera joaten ziren sarri, haren irriari eta biziari eutsi nahirik.



Mitxelena eta Mattin lagunekin, Donostian

MATTIN HIL DA!

Baina inork ezin lortu ordea heriotzaren legea hausterik. Eta uztailearen 22an hil zen azkenik Ahetzeko Mattin bertsolari maitea, heriotzaren albistea haizearen lau aldetara berehalaxe zabalduz irradi bidez. Bagenekien gaizki zegoela azkenengo egunetan, baina inork sinestu nahi ez gure artean berriro ikusiko ez genuenik.


Eta 1981eko uztailearen 25ean sekulako jendetza bildu zen Ahetzeko plazan, gizon handi hari agur esateko. Eta hiletaren hasieran, Ahetzeko plaza jendez gainezka

zela, «Zonbat eta zonbat aldiz ez gaitu bildu egun arte, eta bere bertsuz eta kantuz argitu eta alegeratu! Bainan egungo biltzarre hau ez da bertzeak bezalakoa. Mattinen alderako amodioz bilduak gira, ahal bezenbat gure tristezia agertu gabe, huni afrunturik ez egiteko», esan zuen apaiz jaunak eliztarrei ongi-etorri egitean.

Eta elizkizun eder eta hunkigarriaren ostean, Mattini lur ematea egin zen, denak isilik, denek malkoak begietan, bertsolari lagunen agurrak, otoiak eta kantuak entzunez.

Lagun ttiki handi batek utzitako hutsunea nabaritu genuen lagunarte hartan, nahiz eta itxaropenez beteta ginen, Pello Esnal bertso-jartzailea bezalaxe:

Zeru aldera begira nintzan
gauetz jarri,
eta ilargia nuen
keinuka igarri:
«Hemen denok dakigu
Mattin horren berri,
izar artean dabil
bertso eta irri».



Mattinen liburuen argazkiak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mattinen seme Jean Pierre Trekuri
- Joakin Berasategiri (Sendoa)
- Itxaro Betharti

Mattinen liburuak:

- 1) *Abal dena* (Auspoa 107 - 1971)
- 2) *Etxe xokotik kantari* (Auspoa 151 - 1981)
- 3) *Mattin, nere gizona* (Mari Treku - Auspoa 158 - 1982)
- 4) *Mattin bertsularia* (hiruren bilduma - Auspoa 298 - 2006)
- 5) *Mattin eta Xalbador* (Auspoa 301 - 2006)

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2797-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2798-0

L.G.: VI-445/08

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco